



Distantzia 7,2 km | **Desnibela** 620 m | **Iraupena** 3h00 | **Tipologia** Itzulia | **Zedarriak** PR seinaleak (horia)

Donibane Lohizunetik (A63 autobideko 3. jalgebidea), D918 segitu Azkaineko norabidean. Azkaineko hiri-barnera joan D504 errepidetik, eta D4 errepidea hartu Sarako norabidean. Sarako ingurubidean, D306 errepidea segitu, Lizarieta lepoko norabidean, 3,2 km-tan. Errepidea utzi ezkerrera hartuz "Sarako harpeeta-ko" norabidean. 2 km urrunago, eskuin hartu bidegurutzearen heinean (norabide bakarrean) eta ibilgailua 100 m urrunago utzi eskuineko aparkalekuan (Sarako harpeen aparkalekua baino 150 m aitzinago).

GPS datuak: **UTM : 615868 - 4791732 Lat/Long : 43.26948/-1.57221**

Sarako lezeetatik abiatuz (bisitatxo bat merezi dutenak), itxura ederreko tontor horren igoaldiak ikuspegi oso zabala eskaintzen du, iduriz sai arrei gustatzen zaiena. Zugarramurdi herriaren parean abiatzen den jaitsiera Espainiako isurialdean egiten da, eta ondotik, artzain-ibarxa liluragarri batean.



1. ZATIA > Sarako lezeen aparkalekutik Arrosagaraiko bideen elkargunera (alt.330 m)

UTM: 615868 - 4791732

Aparkalekuaren ondoan (180 m), metalezko xeila iragan eta segidan eskuinera igo, egur biribilez egindako eskailera batetik. Oihan bazterrean, bidegurutze baten heinean (zuzeko xeila + ur-bilketa ezker), bidexka eskuinerantz hartu. Laster bide batera iristen da: bidegurutze hau gogoan hartu, itzultzerakoan ez huts egiteko. Oraingo, bidea igo ezkeraldera; doi bat urrunago, eskuineko bidea utzi, eta bidegurutze batera heldu, xeila bat badela eskuin (330 m); handik etorriko da itzultzeko bidea.

2. ZATIA > Arrosagaraiko bideen elkargunetik (alt.330 m) Axuria gailurrera

UTM: 615 487 - 4791 226

Bideen elkargunean, xeila bat badela eskuin (330 m), ezkerrekoa hartu. Beste bide bat topatzen duzularik, eskuinerantz igo. Eskuinera jaisten den bidea utzi eta segi ezker igotzen. Konifero-landa baten bazterrean iritsi eta, bideak bihurtu bat marrazten du eskuinera, eta ondotik, ezkerrean. 120 m urrunago, guti gorabehera, bidea utzi eta eskuinera doan bigarren mailako bide belartsuan igo. Bihurgune zenbait marrazten ditu eta lautzen da. Diagonalean



ezkerrera igo, tontor-lerrera hurbilduz urratsez urrats, beti ere 10 - 20 m-tan egonez behere aldean. Axuria gailurrera iritsi (cairn handia).

3. ZATIA > Axuria gailurretik, arditegi-ostatuko bidegurutzera

UTM: 616097 - 4790192

Gailurra iragan (759 m), tontor-lerrotik urrunduz ezkererantz metro zenbaitz jaitsiz. Gailurretik 90 m-ko desnibelaren ondotik, bidexka tontorraren lepo batera heltzen da (pareta aztarna lurrean eta cairn): hegoaldera jaitsi (eskuin) zailtasunik gabe. 30 m urrunago, zeharka ibili eskuineko bidexkan. Elorri zuriko zuhaitzian, doi bat eskuinera igo, eta zelai arin baten ondotik, eskuinera jaitsi gailurreko ezponden bazterretik. Lehen arditegi baten aitzinean pasatu. Bidetik segitu lehen bidegurutzeraino, arditegi-ostatua ondoan (Loretxoa), hespil baten eskuinean kokatua.

4. ZATIA > Arditegi-ostatuko bidegurutzetik (Loretxoa) aparkalekura

UTM: 615455 - 4790714

Bidexka utzi (455 m) eta ezkerreko bidetik ibili (haritzak). Beste bide batera heltzen da: eskuin hartu. Erreka ohea zeharkatu, eskuineko bidean segitu, erreka berri zeharkatu, eta 15 m urrunago, bidea utzi ezkerrean den bidexka hartzeko, erreka bazterretik doana. 800 m urrunago guti gorabehera, bidexka bide belartsu batera iristen da, bihurtu batekin. Eskuinera igo, eta berriz eskuin, hespil bat baino 15 m aitzinagoko laugunean. Arditegiaren aitzinean altxatuak diren harrien heinean, haritz bakartiaren aldera joan, ezker; lehen xeila bat iragan eta, bigarrenaren ondotik, ezker jaitsi. Aparkalekura itzuli, joatean hartutako ibilbidearen kontrako norabidean.

INTERESGUNEAK

❖ Aker beltza (1,5 km)

Zure igoaldiaren denboran, ahuntz eta akerekin erdi-basati batzuk ikus ditzakezu mendian ibiltzen. Animaliak eta, bereziki, erabiltzen dituen lekuek leku handia dute euskal mitologiari: Akelarrea, sorginek ospatzen zuten errotuen tokia da. Han, Akerbeltz ohoratzen zuten, Satan gurtzari lotua, boterea eta aberastasuna ukaiteko xedearekin. UTM: 615783 - 4790986

❖ Zugarramurdirako ikuspegi (2,6 km)

Gailurretik, argiki ikusten dugu ipar-ekialdean eta mendien oinean, Zugarramurdiko herria. Sara bezala, herri hau ere bere harpeengatik famatua da. Behiala, ezohiko erritu pagano batzuen lekua izaten ziren, tripa joko paregabeak eta etengabeko dantzak suaren inguruan. Hantxe elkartzen omen ziren sorginak. UTM: 616097 - 4790192

❖ Sai arreak (4 km)

Sai arrea, gorraile koloreko lumadiari, buztan motz eta lauki itxurakoari eta lepoko zuriri esker errazki ezagut daitekeena, Europako harrapari handienetakoa da: hegal hedadura 2,8 m-raino hel daiteke! Sarraskijalea, egiazko mendietako larrutzailea, isurialdeak abere hiletaz garbitzen ditu eta mikrobioen hedatzea mugatzen du.

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Axuriako jaitsieran, giltza-puntua ez huts egin, Espainia aldeko isurialdean jaisteko. Bidexka honek ez du zailtasun teknikorik sortzen. Doi bat aitzinago, eguraldia hezea delarik, bidexkako patarrean diren lauzei ere kasu egin.

UTM: 616486 - 4790232

- Denbora txarrez saihestekoa

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

4,6 km
Loretxoa ostatu-jatetxea (ausazko irekitzea)

UTM: 615 455 - 4790 714

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltariarentzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolariarentzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarritueta.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinaren kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereizi itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona				▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✕	✕	✕	✕

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 -
SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeo aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAIN, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.